



LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

KULTUR, KIROL ETA EUSKARA LAN TALDEAREN BILERAREN AKTA

2014ko uztailaren 15ean, Udaletxeko Areto Nagusian arratsaldeko sei t'erdia izanik, jarraiean adierazten diren pertsonak bildu dira:

Iñigo Lasa, Igor Artola (Legorparty) eta Jexux Mari Arrizabalaga.

LANDU DIREN GAIAK

1.- HERRI JAIK 2014, BALORAZIOA.

Jexux Marik, bilera deialdi honi erantsita bidali den herri jaien balorazioa mahai gainean jarri du. Bertan azaldutako puntu guztiak aztertuta, egokitzat ikusi da eta ez zaio beste ekarpenik egin. Balorazio hau 2015eko herri jaiak antolatzerakoan kontutan izango da.

Eginiko balorazio hau akta honetan txertatzen da.

"2014ko HERRI JAIEN BALORAZIOA

Balorazio hau eskema moduan egiten saiatuko naiz, bestela bai egiteko nola irakurtzeko ezinezkoa gertatuko da.

- *Proposamen berri bat jaso dugu herri jai egitaraua argazkiz hornitzeko, jaietako argazki lehiaketa bat antolatzea. Honek hurrengo urterako argazkiak izatea ekarriko luke eta udalaren web gunean ere argazki hauek erakusgai eta eskuragarri egon daitezke.*
- *Megafonia aurten nahiko ongi ibili da, dena den, megafonía aparatua jende askok erabiltzen du eta bakoitzak derizkion botoiak ukitzen ditu.*



LEGORRETAKO UDALA (GIPUZKOA)

Ondoren datorrenaren kalterako. Egokiena dagoen horretan ukitu gabe uztea izango litzateke, baina zaila da.

- *Jai Egitarauaren ale kopurua egokia izan da, ale batzuk sobratu arren kopuru hau behar dela esango nuke (buzoneo, iragarle, inguruko herrietako udal, eta abarretara bidaltzeko). Buzoneo hau "aditu" batek egitea komeni da, bestela buzoneoa ez da oso zuzena izaten eta jendea kexatu egiten da. Aurten nahiko ongi ibili gara.*
- *Txirrindulari lasterketa aurreko asteburuan gauzatu zen, ongi joan zen, baina judoa herri jaietako igandera pasatzea erakarri zuen.*
- *Elekun abesbatzaren kontzertua ohi den legez.*
- *Suziri jaurtiketari dagokionez, hobetze aldera, suziri jaurtitzailearen aurkezpen txiki bat OFF ahotsean egin da. Jai egitarauetan azaldutakoarekin aski da. Suziria jaurti duenak ere hitz gutxi batzuk esan ditu oso egokia izan dela deritzot*
- *Buruhandiei dagokienez, inoiz izan diren egokienetakoa izan dira, lasai ibili dira plaza inguruan. Bera da formularik egokiena.*
- *Asteazkeneko musika emanaldia buruhandiekin musika eskolakoek egin dute.*
- *Bertsolariei dagokienez oso ongi. Inoiz izan den saiorik hoberenetakoa izan dela aipatu didate entzuleek.*
- *Osteguneko dantzari dagokionez, udalaren ekipoa montatu da eta hori da bide zuzena. Aurten ez da agintarien soka dantzarik izan eta arrazoi hori dela eta ordu erdi beranduago hasi dira inori abisurik eman gabe. Txorixo banatzaileak kexatu egin dira eurangan duen eraginagatik eta arrazoi dutela uste dut. Aurrez horrelakorik bada jakinerazi egin behar da. Musikak aurten ere huts egin du. Ezinbestekoa da prueba bat egitea eta baita ekipoa "pendraif" batez hornitzeko ahalegina egitea. Aurten 100 aulki ere jarri dira, udaleko langileak laguntzaile izan direlarik. Ongi dago eserlekuak jartzea, baina nork jarri eta kendu kontutan izan behar da. Aurten ere eguraldi txarra izan dugu eta pilotalekuan dantza egin behar izan dute, aurten B plana ongi atera da. Emanaldiari dagokionez ohikoa ZORAGARRIA.*



LEGORRETA UDALA

(GIPUZKOA)

- *Asto karrerari dagokionez OSO ONDO. Aurten segurtasun neurriak asko handitu dira (moto kasko integralak, bizkarra eta petxua babesteko babesgarriak, laguntzaile bana asto bakoitzak, ...). Segurtasuna ahalik eta gehien bermatu behar da eta hala izan behar du derrigorrean. Eguraldia txarra zen eta azken unerarte ez zen egitea erabaki. Dena den, antolaketa aurrez hobeto prestatu behar da eta gazteek gehiago lagundu beharko liekete antolatzaileei. Astoak dakartzanak ere aurrerapen handiagoz etorri beharko luke. Lau asto ekarrita aski da. Aurten egundoko giroa sortu da. Oso positiboa segurtasuna erabat zainduz.*
- *Haur jolasei dagokienean puzgarriak handiegia gertatu dira, txikiagoak ekartzea aski da. Eguraldia txarra bada ez baitira denak sartzen.ekarri diren elementu gehigarriak oso ongi egon dira. Datorren urtean Joakim Augustok bere aurrekontua aurkeztu nahi du baina bi gauza kontutan izan beharko lirateke batetik "legezkoa izatea" eta bestetik elemendu gehigarriak ez daukala. Aurten puzgarriak bildu baino lehen play back montatzaileak etorri dira eta enbarazo egin dutela aitortu behar da.*
- *ETBko BOST BAIETZ programakoak grabatzera etortzekoak ziren, baina eguraldia txarra zenez, joan egin dira eta merkatal zentru batean egin omen dute grabaketa.*
- *Play Back-a zoragarri Gazte-Pikuk, antolaketa, ikuskizuna eta den dena txalogarri. Aretoa ere txiki gertatzen ari zaigu, baina entzumen arazoak direla eta ezin daiteke kiroldegira eraman.*
- *Larunbatean etorritako txaranga, THE JOSELONTXO'S oso onak zirela esan digu jendeak, dena den, kendu daitekeen saio gutxietako bat dela uste dut. Hauek txakolin banaketarako ongi datoz, baina bestela kalean moztarroarekin aski dela iruditzen zait niri pertsonalki.*
- *Proposamen bat ere jaso dugu, paellak prestatzeko hesiz itxitako gune itxi bat jartzea. Barruan mahaiak ere jarriko genizkieke izena ematen dutenei. Segurtasuna handituko luke, baina eguraldia txarra bada non montatzeko arazoak izango genituzke eta azpiegitura hori nork jarri eta nork kendu erabaki beharko litzateke.*



LEGORRETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

- *Igandea beti bezala nahiko hila edo xoxitoa, judoa igande arratsaldera pasa da eta nire ustez antzeko da aurreko asteburuan edo igandean bertan egitea. Premien arabera funtzionatzea egokia dela uste dut eta erabakia Ugarotarrak Guraso Elkartearena delakoan nago. Judo emanaldia ongi joan zen, ohi den bezala.*
- *Igande arratsaldeko herri kiroleetan ikusle asko, aurten aizkolariak izan ditugu, aurrez egurra nork etxera eraman kudeatu dugu eta Antton Altunak lan hau egun berean primeran egin du, baina azken momentuan beste norbaitek hartuz gero eskertuko lukeela aitortu digu.*
- *Herri kiroleko udalaren megafonia montatu dugu eta ulertezina izan da. Kiroldegiaren ezaugarriak direla eta, gure ezagutzarekin ez dugu hitza ulergarri izatea lortzen.*
- *Gizon pikuaren ehorketarako Cd edo "pendraif" batean musika egokia jartzea oso komenigarria litzateke, gailu honek gainera urte guztietarako balioko luke. Musikak ekitaldia osatu egingo lukeelakoan nago.*
- *Krossa benetan ongi joan bada ere, Bilkoinek zenbait gauza apuntatu beharko lituzkeela uste dut eta etorkizunean oraindik ere hobetoago egiten saiatuko dira/gara. Aurten hamaiketako ez gara banatzen hasi sari banaketa amaitu artean, eta HALA BEHAR DU!. Baina sari banaketa ahalik eta azkarren burutzea komeni da. Haurren kategorian herritarrentzat bakarrik sariak izango direla ere kontutan izan behar da. Dominei dagokienean, aurten 100 domina ziren eta batzuk sobratu dira. Aurten laguntzaile asko izan dira eta dena oso ongi joan da. Aurten 182 korrikalari izan ditugu (27 emakumezko eta 155 gizonezko). Haurren mailan inoiz izan den partehartzerik handienetakoa izango zelakoan nago. Sari banaketa berdintasun ikuspuntutik egin dugu. Denak ohotzan gera daitezela azkenean irabazle guztien argazki bat ateratzeko. Inskripzioa egiten duten Ana Rosa eta Mari Josek zera eskatu dute, aurrerantzean inskripzioa aurrez internetez egitea bultzatzea, berdin Legorretako korrikari izan edo kanpoko. Formula hau bultzatu behar dela lana ahal bezain gehien aurreratu ahal izan dadin eta zezanak arrapa ez gaitzan. Urtetik urtera partaide kopurua gora*



LEGORRETAKO UDALA (GIPUZKOA)

doa. Izen-ematea herrikrossa.com-en bidez ere egitea oso egokitzat jo da aurten, ezinbestekoa esango nuke. Lasterketa iragartzen duen kartelean aurrez herrikrossa.com web gune bidez izena ematea eskatzea (Legorretarra edo kanpotarra izan berdin) oso komenigarria dela uste dugu inskripzioak errazteko eta denbora falta saiesteko. Jarraian antolaketan lan egiten duen jendeak egin dizkidan iradokinak aipatuko ditut bata bestearen atzetik, lana hobetzeko balio izango duela uste baitut. Zenbait korrikalarik "kontsigna" antzeko zerbait eskatzen du korrika ari diren bitartean arropak, kartela eta abar uzteko. Hau dortsalaren zenbakia jasota udaletxeko pleno aretoan bertan jarri dugu aurten, hau pertsona batek antola dezakeela uste dut eta zerbitzua hobetzea erakarriko luke. Aurten helmuga puntua bertako "arraultzez" garbitu behar izan dugu helmugarako behar adinako lekua izateko. Hau aurrez udalari egin dezan eskatzea ezinbestekoa dela deritzot.

- Aurten ere ardo dastaketan partaidetza errekorra izan dugu. 25. Edizioa izan da jai egitarauko kontraportadan ikusi ahal izan den bezala.
- Aurten ere SASIETatik materialea ekarri da (Korputz eta San Joan bezperarako). Gai hau atez ateko zabor bilketaren inguruan sortutako plataformakoek gauzatu zuten Ana Rosaren laguntzarekin (Zelai Amenabarro, Adur Jauregi, ...). Ekarritako materialeak honakoak izan zen: 600 plater handi, 100 plater txiki, 300 baso handi eta 300 baso txiki. Materiale guzti hau bildu, erabili, gabitu eta itzuli egin behar da. Agian etorkizunean langabetu bati lan hau eman eta materialeak eskuratzea kobratu daiteke pertsona horri irabazitako diruaren hanbesteko bat emanez. Pertsona honek ekartze lana, banaketa, garbiketa eta Sasietara eramatea bere gain hartuz. Materialeak galduz gero ordaindu beharreko kopurua ere berak ordaindu beharko luke.
- San Joan egunaren balorazioa aparte egin dago, herri jaiez kanpo.

Azkenik eskerrik beroenak Legorretako Jaiak halakoak izatea ahalbideratu duten laguntzaile guzti guztiei."



LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2.- KULTUR ASTEA 2014

Kultur Asteari dagokionez, eragile bakarra etorri da, Igor Artola Legorparty ekintzaren ordezkari gisa. Berari galdetuta, joan den urtean partaide kopurua jeitsi bazen ere antolatzen jarraitzeko asmoarekin daudela adierazi du. Udaletik joan den urtean izan zituen baldintza ekonomikoak, lekuak, datak, ... izango dituela azaldu zaio.

Gainerako eragileei gutuna bidali bazaie ere, gaur ez dira etorri. Korto Lehiaketako antolatzaileak izan dira etortzerik ez dutela adierazi duten bakarrak, Asier eta Iker Zinkunegi. Hauekin eurei dagokien gaia aurrerago landuko dugula adierazi da

Ibilgailu klasikoen topaketa antolatzaileekin aurrez hitz egin du Jexux Marik eta aurrera jarraitzeko asmoa azaldu dute. Ari dira euren topaketetan Legorretan urriaren 26an izango dena iragartzen.

Irailaren haseran beste kultur lan taldeen bilera bat deituko da kultur astearen gaia lantzen jarraitzeko.

3.- BAKOITZAK LEKARKEENA.

- Euskara ikastaro deialdiari dagokionez, aurten, urtero bezala, irailaren 3an deialdia ohiko moduan zabalduko da. Epea irailaren 19an amaituko da eta mailaketa berri irailaren 23an gauzatu. Antolatutako eran garatzea erabaki da.
- Euskara ikasteagatiko dirulaguntzei dagokienez, aurkeztutako guztiek baldintzak betetzen dituztela egiaztatu da, beraz alkatetza dekretuz dirulaguntza horiek ordaintzea erabaki da.
- Pilates ikastaro antolaketa lanak ia amaituak daude, gai hau Jexux Mari amaitzean Iñigori berri eman eta berak adierazitako eran burutzea erabaki da.
- Anlatzeko aukeran gauden edergintza ikastaroari dagokionez, ikastaro ondoren bere laborategiaren produktuak saltzeko aukera badago, propaganda berak egitea erabaki da eta produkturik



LEGORRETAKO UDALA
(GIPUZKOA)

saltzen ez bazaie Udalak egingo du ikastaro deialdia. Bi kasutan ikastaroa burutzeko arazorik ez legoke. Irakasleari deitu eta hartutako erabakia jakinerazi behar zaio. Hala egitekotan geratu da Jexux Mari.

Aurrez aipatu bezala hurrengo bilera egiteko egunik zehaztu ez bada ere, seguruenik iraila haseran izatea aurrikusten dugu.

Besterik gabe, artsaldeko zazpiak eta laurden izanik bilera amaitutzat eman da.